



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José Iparraguirre Altamira
María Cristina Apezteguia Saldias
Teresa Miqueo Gamio
Eusebio Elizalde Mariezcurrena

2010eko maiatzaren 27an, goizeko 11tan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Aparteko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Alkatea den, José M^a Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

1. ALTXADAKO ERREKURTSOAK.

1. 2010eko otsailaren 16ko erabakiaren aurka - behin-betiko onespina U.E. 1 unitateko urbanizazio proiektuari - aurkeztutako 10/2339 altxadako errekurtsoa aztertu eta gero, txosten-idazkia onetsi dute ahobatez, Nafarroako Auzitegi Administratibora bidaltzeko.

2. 2010eko otsailaren 16ko erabakiaren aurka -behin-betiko onespina U.E. 1 unitateko borondatezko birzatiketa proiektuari- aurkeztutako 10/2340 eta 10/2341 altxadako errekurtsoak aztertu eta gero, txosten-idazkia onetsi dute ahobatez, Nafarroako Auzitegi Administratibora bidaltzeko.

3. 2010eko otsailaren 16ko erabakiaren aurka -behin-betiko onespina U.E. 1 unitatearen esparruan lagatu beharreko %10 eskudirutan ordaintzeko hirigintza hitzarmenari- aurkeztutako 10/2342 eta 10/2343 altxadako errekurtsoak aztertu eta gero, txosten-idazkia onetsi dute ahobatez, Nafarroako Auzitegi Administratibora bidaltzeko.

Eta bertzerik ezean, eguerdiko 12ak direnean, alkate Jn.ak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.